

Bertso uholdea Aiaraldeko eskoletan!

500 ikasle baino gehiagok landu dute bertsoaritzza Aiaraldeko ikastetxeetan. Bertsozale elkarteke bi irakasle ibili da gelaz-gela.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak eta DBHko 1. mailako ikasleak izan dira Gu ere bertsolari programan parte hartu dutenak. Amurrioko udala, Urduñako udala, Aiarako udala eta Laudioko udala izan dira proiektu honen bultzatzaile nagusiak, Arabako bertsozale elkar-tearekin elkarlanean.

Haurrek primeran pasa dute bertsoak egin eta entzunez, euskaraz jolastuz eta bide batez hainbat bertso emanaldi burutu dituzte, ikastetxean edo herrian.

IKASTETXEAK

AMURRIO

- Lukas Rey Ikastetxea
- Zabaleko ikastetxea
- Aresketa ikastola
- Zaroabe Institutua
- Virgen Niña ikastetxea

LAUDIO:

- Lateorro ikastetxea
- Lamuza ikastetxea
- La Milagrosa ikastetxea
- Laudio ikastola
- Fabian Legorburu ikastetxea

AIARA:

- Etxaurren ikastola
- Arteko Gure Ama ikastetxea

ORDUÑA

- Josefinos de Murialdo
- Urduña Herri eskola



Bertso barnetegia Espejon

Aurten ere bertso barnetegiaz gozatzeko aukera izan dute Aiaraldeko umeek.

Arabako bertsozale elkarteak, Aiaraldeko udaletxeekin elkarlanean, bertso abentura antolatu du.

3. urtea izan da aurtengoa bertso barnetegi hau antolatzen dela. Urtez urte geroz eta ume gehiago ari dira bertso barnetegiira etortzen!!

Apirilaren 3tik 5era, Amurrio, Urduña, Aiara, eta Laudioko 63 ume elkartu ziren Espejoko aterpetxean. Bertan, primeran pasatzeko aukera asko izan zituzten umeek, bertsoa, kantak, jolasak, gaubelak, ... Giro paregabea pasatu genituen 3 egun hauek. Herri ezberdinetako umeak elkar ezagutzeko eta euskara hutsean egun batzuk pasatzeko aukera ezin hobea!!



Ikastetxeetako ekintzak

Lehen aipatu bezala, Aiaraldeko eskola guztietan landu da bertsolarita. Kurtsoan zehar gelaz gela ibili dira bertsozale elkarteko irakasleak. Eskola orduetan burutu dira klase hauek eta umeak bertso mundura hurbiltzeko oso baliagarriak izan dira. Oinarrizko ezagutza bultzateko lehendabiziko oinarria izan da batzuentzat eta aurretik ezagututakoa sendotzeko balio izan du besteentzat. Kurtsoan zehar, umeek eskoletan bertso asko sortu dituzte



eta horietako bertso asko eta asko jendeaurrean abestua izan dira. Kasu batzuetan ikastetxeetan egindako jaialdietan (gabonak, ihauteriak, kurtso bukaerako jaialdiak, ...) kantatzeko bertso sortak izan dira eta beste kasu batzuetan herri ezberdinetan egin diren jaialdietan (korrika, euskararen eguna, ...) kantatzeko prestatuak izan dira

Kurtsaori bukaera emateko bertso jaialdi bereziak egin dira Laudioko eta Amurrioko udalak bultzatuta. Maiatzaren 29an elkartu ziren amurrioko ikasleak bertan dagoen antzokian eta Maiatzaren 31ean berri, Laudiokoak elkartu ziren La Salleko aretoan.



Eskolarteko txapelketa 2013

Ekainaren 1ean ospatu ziren Arabako eskolarteko bertso txapelketaren finalak, Legution.

Goizeko saioan bertsolari gazteenak (14 urtez beherakoak) aritu ziren kantari. Lautada, Aramaio, eta Gasteizko taldeak primeran aritu ziren han elkartutako guraso eta bertsozaleen gozamenerako.


Behin txikien saioa bukatuta, 50 lagunetik gora elkartu ziren bertako frontoian bazkari "familiarra" egiteko. Ederra paella!

Arratsaldeko 4 terditan eman zitzaion hasiera 18 urte beherakoen finalari. Egoitz Iradier, Maddalen Arrausi, Jon Unai Axpe, Peru Abarrategi, Iñaki Tena eta Sabin Aranburu saio bikaina eskeini zuten. Bukaeran, Peru Abarrategi aramaioarrak jantzi zuen txapela.

Aurten, Asier Rubio luiaondoarrak lehenengo aldiz hartu du parte txapelketan. Etorkizun oparoa duen gaztea da Asier, animo txikito!!!!



Arabako bertsolari txapelketa 2013



Urtarrilaren 19 an egin zen Arabako bertsolari txapelketaren aurkezpena. Abornikan dagoen Abel Enbeitaren baserrian burutu zen ekitaldia.

Handik astebetera eman zitzaion hasiera txapelketari, lehenengo kanporaketa Lantenon ospatu zelarik. Lantenoko saioa eta gero beste hainbat kanporaketa ospatu ziren eta hauek bukatuta, finalerdiak. Final handia erabakita!!

Gasteizen dagoen Printzipal aretoa goraino bete zen Martxoaren 16an. Ruben Sanchez, Iñaki Viñaspre, Manex Agirre, Asier Otamendi, Oihane Perea eta Jagoba Apaolaza izan ziren finalean kantatu zutenak. Amaieran Oihane Perea jantzi zuen txapela. Aupa zu Oihane!!

Aiaraldeko 6 bertsolari txapelketan!!

Twenty ta Facebook watsapp ta twiter

Sare sozialez gaude blai

Ez al da hobe lagun artean

Tragoak hartzea lasai

Gaur eguneko teknologiak

Bihurtu daitezke etsai

Erabiltzea ez dago txarto

Pasatzea ordea bai

Gaur egunean den egoera

Ez da batere txukuna

Ez al da latza eta larria

Gaur egun bizi duguna

Prestatu gazte kalera irten

Hartu erantzunkizuna

Gurea bait da oraina eta

Baita ere etorkizuna

Doinua:Pello Joxepe

AMURRIOKO BETSO ESKOLA

Egun osoa pasatzen dugu

Sofa batean jarrita

Saio bakarra ikusi ezker

Denak daude ilusita

Pentsatu ondo honen ondoren

Ez al gaude itzalita

Zure burua piztu ezazu

Ta itzali telebista

BERTSO ESKOLAK AIARALDEAN

AMURRION: - Gazteen bertso eskola
- Helduen bertso eskola

LAUDION: - Umeen bertso eskola
-Gazteen bertso eskola
- Helduen bertso eskola

ZATOZ GUREKIN...

**ETA AIARALDEA BERTSO ES-
KOLEZ BETEKO DUGU!!!!**

AIEBE Aiara eskualdeko bertso-eskola

Arduraduna: Unai Mendibil
e-posta: trunkatun@hotmail.com

Arabako Bertsozale Elkarte
Benito Perez Galdos, z/g- Amaia Zentroa
945 010505/ araba@bertsozale.com

www.arababertsozale.org

www.bertsozale.com

www.bertsoa.com